

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

### ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

**4/2022 Foru Araua, martxoaren 9koa, 2/2022 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, otsailaren 22koa, baliozkotzeko dena, onespena emateko atzerrian kokatuta dauden ondasun eta eskubideei buruzko informazioa emateko betebeharraren araudia aldatzeari**

Arabako Batzar Nagusiek, 2022ko martxoaren 9an egindako osoko bilkuran ondoko foru araua onetsi dute:

4/2022 Foru Araua, martxoaren 9koa, 2/2022 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, otsailaren 22koa, baliozkotzeko dena, onespena emateko atzerrian kokatuta dauden ondasun eta eskubideei buruzko informazioa emateko betebeharraren araudia aldatzeari.

#### HITZAURREA

Otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauak –Arabako Zerga Orokorrari buruzkoa- 8. artikuluan baimendutakoarekin bat etorritz, Foru Gobernu Kontseiluak onartu du, presazko arrazoiak direla-eta, otsailaren 22ko 2/2022 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, onespena emateko atzerrian kokatuta dauden ondasun eta eskubideei buruzko informazioa emateko betebeharraren araudia aldatzeari.

Aipaturiko 8. artikulua 2. apartatuan ezartzen du, xedapen orokor horiek Batzar Nagusiek baliozkotu edo indargabetu behar dutela indarrean dauden arauen arabera.

Tramite hori eginda, Batzar Nagusietako Osoko Bilkurak baliozkotze akordioa hartuta eta 2013ko apirilaren 22ko Arabako Batzar Nagusietako funtzionamendu araudia aldatzeko 17/2013 Foru Arauaren 147. artikulua arabera, bidezkoa da aipatutako Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua baliozkotzeko foru araua ematea.

**ARTIKULU BAKARRA.** Baliozkotuta geratu da otsailaren 22ko 2/2022 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, onespena emateko atzerrian kokatuta dauden ondasun eta eskubideei buruzko informazioa emateko betebeharraren araudia aldatzeari.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko martxoaren 9a

*Presidentea*

**PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA**